


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2012KO UZTAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 igo dira 2012ko uztailean, aurreko hilaren aldean

Eraikuntzaren kostuak % 0,9 igo dira azken hamabi hilabeteetan (2012ko uztaila, 2011ko uztailarekin alderatuta)

EUSTATEk emandako datuen arabera, 2012ko uztailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,4 igo zen aurreko hilaren aldean eta, beraz, urte arteko tasa % 0,9 igo zen hilabete horri dagokionez.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza uztailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2012ko uztailean, eskulanaren kostua ez zen aldatu (% 0,0); lehengaien kostuek, berriz, % 0,6 egin zuten gora.

Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreen kasuan, lehengaien kostua igo egin zen uztailean; Etxegintzan % 0,4ko igoera izan zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilean, berriz, % 1,3koko igoera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zenbait desberdintasun daude: Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,8 igo ziren eta, Obra Zibilari dagokionek, berriz, % 1 egin zuten gora.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO UZTAILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,6	0,4	0,9	0,1
ERAIKINAK	119,5	0,3	0,9	0,0
OBRA ZIBILA	124,8	1,0	1,0	0,3
LEHENGAIEN KOSTUA	119,7	0,6	0,8	-0,2
ERAIKINAK	118,3	0,4	0,8	-0,3
OBRA ZIBILA	125,0	1,3	1,0	0,0
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan honako hauek izan dituzte inflazio-tasa handienak: energia elektrikoa eta gasa (% 7,6), makineria (% 6,5) eta petrolioa fintzea (% 4,8), besteak beste. Aitzitik, urteko prezioetan (2012ko uztaila, 2011ko uztailaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: metalurgia (% -4,1), beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% -0,9) eta beste manufaktura-industriak (% 0,0).

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.